

**EDUKIAK:****1. UNITATE DIDAKTIKOA: 1. hiruhilabetea****TITULUA:** Hazkunde handi, irabazi tippi

1.1 Handitzen, handitzen..

1.2 Zoria beti zor

**2. UNITATE DIDAKTIKOA: 2. Hiruhilabetea****TITULUA:** Mugak zabal, erantzun anitz

2.1 Ekuazioen ertzak zabaltzen

2.2 Datuetatik iragarpenetara

**3. UNITATE DIDAKTIKOA: 3. Hiruhilabetea****TITULUA:** Neurtzea eta erlazionatzea, aurreratzea!

3.1 Neurtzea: Zuzenean ez bada, zeharka

3.2 Hasierako egoerari aurre egiten

**KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:****MATEMATIKA AKADEMIKOA DBH4**

Kontuan hartuko diren aspektuak:

- Ikaslearen jarrera.( interesa, arreta, parte hartzea, euskararen erabilera,.....)
- Lana: klasekoa eta etxekoa.(egunero egin behar da)
- Kontrolak.

Ikaslearen jarrera kalifikazioan isladatuko da.

Ikasturtean zehar hiru unitate didaktiko landuko dira. Unitate didaktiko bakoitza bi osagaik osatzen dute.

Osagai bakoitzaren garapena klasean burutu ondoren, ikasle bakoitzari ikasgaiaren helburu minimoen zerrenda emanen zaio eta horiei buruz antolatuko dira proba idatziak.

**Kontrolak:**

Osagai bakoitzeko kontrol bat egingo dute ikasleek. Kontrol guztietan, item guztien gehienezko puntuazioa adieraziko da.

**Unitate didaktiko bakoitzaren nota:**

Unitate didaktikoa osatzen duten osagai bakoitzaren kontrola gehi konpetentziak baloratzeko jarduera bat egingo da.

Unitate didaktikoaren nota

- Osagaien noten batezbestekoa (beti ere bietan 4 baino gehiago izan behar dute): %80
- Konpetentzien nota: %20.

Unitate bakoitza bukatzean, osagaien zatia gainditzen ez duenak, bi osagaien berreskurapena egin beharko du proba bakar batean, gehienez 5 bat lor dezakeelarik.

**Ebaluazioko nota:**

Ebaluazioan zehar eman den unitate didaktikoarena izango da. Kontrolen kalifikazioak ez ezik, jarrerak eta euskararen erabilpenak ere jokatuko dute azken nota osatzeko, beti ere kontutan hartuta ikasle batek ez duela 4 baino nota altuagorik izango jarreran E(oso txarra) kalifikazioa badu. Kasu hau kenduta, jarreraren arabera puntuazioa jaitsi ala igo daiteke (gehienez jota puntu bat).

**Ekaineko nota:** Unitate didaktiko guztiak gaindituta izanez gero, hauen guztien noten batezbestekoa izango da.

Unitateren bat gainditu gabe duen ikasleak pendiente dituen unitateen berreskurapena egiteko aukera izango du ekainean, proba batean. Pendiente dituen unitate bakoitzean, gutxienez 5 atera behar du gainditzeko.

**Ez ohiko deialdiko nota:** Ekainean gainditu ez duen ikasleak, pendiente dituen unitateen berreskurapen proba bat izango du ez ohiko deialdian.